# II ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## Udalak

### AMURRIO

**8446**

**Behin betiko onarpena ematea Amurrioko XIII-12 sektorearen plan partzialaren 21. artikuluaren aldaketa puntualari, mugetarainoko tartea hiru (3,00) metro ezartzeko. Esp.: 09007D106.**

Alkatetzaren 2009ko maiatzaren 8ko Dekretuaren bidez, ekimen partikularrekoa, hasierako onarpena eman zitzaion Amurriko XIII-12 sektorearen plan partzialaren aldaketa puntualari, mugetarainoko tartea hiru (3,00) metro ezartzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 95.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, espediente hori hogei (20) egunez jarri zen jendaurrean. Horretarako, iragarki bana argitaratu zen ALHAOn, 2009ko maiatzaren 22an (58 zenbakia), eta GARA egunkarian 2009ko ekainaren 22an. Jendaurrean egon den bitartean, ez da alegaziorik aurkeztu.

Udalbatzak, 2009ko irailaren 24ko erabaki bidez, behin betiko onarpena eman zitzaion Amurrioko XIII-12 sektorearen plan partzialaren aldaketa puntualari, mugetarainoko tartea hiru (3,00) metro ezartzeko. Honela geratu da 21. artikulua:

“Eraikinak bidetik eta gainontzeko mugetatik gutxienez hiru metrora egon beharko dira.”

Amurriko XIII-12 sektorearen plan partzialaren aipatutako aldaketa 2009ko azaroaren 11ko Arabako Foru Aldundiko Planeamenduko Erregistroan jaso zen, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Amurrio, 2009ko azaroaren 30a.– Alkatea, PABLO R. ISASI AGUIRRE.

### ARMIÑON

**8500**

**Jendaurrean jartzea JEZa ordaindu behar dutenen 2009ko errolda**

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ordaindu behar duten guztiei jakinarazten zaie iragarki hau argitaratzen denetik aurrera ikusgai egongo dela ondoko lekuetan aipatutako zerga ordaindu behar duten zergadunen 2009ko errolda:

Udal kuotak: udal idazkaritzan.

Probintziako eta estatuko kuotak: Arabako Foru Aldundian.

Zergapekoek egoki deritzeten alegazioak aurkez diezazkiekete zerga kudeatzen duen erakundeari edo Arabako Lege eta Administrazio Erakundeari. Horretarako hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Armiñon, 2009ko urriaren 21a.– Alkatea, LUIS ANGEL MEANA PÉREZ.

### BARRUNDIA

**8497**

**Udal Kiroldegiaren erabilera arautzen duen arautegiari hasierako onarpena ematea.**

Udalak, 2009ko azaroaren 16an egindako ohiko bilkuran, Udal Kiroldegiaren erabilera arautzen duen arautegiari behin-behineko onarpena ematea erabaki zuen.

# ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA II

## Municipios

### AMURRIO

**8446**

**Aprobación definitiva Modificación Puntual artículo 21 del Plan Parcial Sector XIII 12 de Amurrio, para el establecimiento de la distancia a linderos en tres metros (3,00 m). Exp. 09007D106.**

Que por Decreto de Alcaldía de fecha 8 de mayo de 2009, a iniciativa de particular, se aprobó inicialmente la Modificación Puntual del Plan Parcial del Sector XIII 12 de Amurrio, con objeto de establecer la distancia a linderos en tres metros (3,00 m).

En cumplimiento de lo previsto en el artículo 95.2 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, el expediente fue sometido a información pública por plazo de veinte (20) días, mediante su publicación en el BOTHA nº 58 de 22 de mayo de 2009 y en el diario GARA de fecha 22 de junio de 2009, sin que se hayan presentado alegaciones.

Por acuerdo del Ayuntamiento Pleno de fecha 24 de septiembre de 2009 se aprobó definitivamente la Modificación Puntual del Plan Parcial del Sector XIII 12 de Amurrio, para el establecimiento de la distancia a linderos en tres metros (3,00 m), quedando la redacción del artículo 21 como sigue:

“Los edificios deberán de separarse del vial y resto de linderos un mínimo de tres metros.”

La citada Modificación del Plan Parcial del Sector XIII 12 de Amurrio fue depositada en el Registro de Planeamiento de la Diputación Foral de Álava con fecha 11 de noviembre de 2.009, de conformidad con lo previsto en el artículo 89 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, del Suelo y Urbanismo.

Amurrio, 30 de noviembre de 2009.– El Alcalde, PABLO R. ISASI AGUIRRE.

### ARMIÑÓN

**8500**

**Exposición Matrícula IAE 2009**

Se pone en conocimiento de todos los contribuyentes del Impuesto de Actividades Económicas, que a partir de la publicación del presente anuncio se encuentra expuesta, en los lugares que se indican a continuación, la Matrícula de contribuyentes del citado Impuesto correspondiente al año 2009

Cuotas de ámbito municipal: En la Secretaría del Ayuntamiento.

Cuotas de ámbito provincial y estatal: En la Diputación Foral de Álava.

Los contribuyentes podrán hacer las alegaciones que consideren convenientes a su derecho en el plazo de quince días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el BOTHA, ante el Órgano Gestor del Impuesto o, alternativamente, ante el Organismo Jurídico Administrativo de Álava.

Lo que hago público para general conocimiento.

Armiñón, 21 de octubre de 2009.– El Alcalde, LUIS ANGEL MEANA PÉREZ.

### BARRUNDIA

**8497**

**Aprobación inicial del Reglamento Regulador de la utilización del Polideportivo Municipal.**

El Ayuntamiento en Sesión Ordinaria celebrada el día 16 de noviembre de 2009, acordó aprobar provisionalmente el Reglamento Regulador de la utilización del Polideportivo Municipal.